


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Atal honetan gure proiektua arrakastatsua izan dadin funtsezkoak diren baliabide ukigarriak eta ukiezinak zeintzuk diren bereiztuko ditugu.

Baliabide fisikoetan oinarrituz, gure kasuan behar dugun baliabide fisikoa lokala izango da. Lokala gure txokoa izango da, zalantzak argitzeko edonor etor daitekeen tokia. Hau posible izateko Uggasa elkartearekin harremanetan jarri gara. Bestalde, dirua oso garrantzitsua da, baliabide finantziarioak. Ondo etorriko litzateke aurretik nahiko diru aurreztuta izatea, edozer gauza gerta daiteke eta.



Guk hainbat abilezia eskeini ditzakegun arren, badaude gure esku ez dauden beste pare bat eta gure proiekturako beharrezkoak izango direla ondoriozta dugu. Guk nutrizioari eta dieta orekatu bati buruz dugun ezagutza minimoa da, beraz, egoera honi bilatu diogun irtenbidea nutrizionista bat kontratazea izan da. Hura bere pasioarekin zerikusia duen lanetan arituko da, egindako ikasketak praktikan jartzen asteroko menuak antolatzen beraien iradokizun eta eskaerak asetuz. Hori gutxi balitz, kontsumitzaileek nahi izango balute, dieta nola jarraitzeaz erreparatuko liekete bere aholkularitza jakintzak erabiliz. Horrez gain, sukaldatzeko jakintza falta dela eta, sukaldaritza ikasketak dituen sukaldari batekin arituko gara elkarlanean. Benetan miresgarria da gure sukaldariak bere abileziarekiko duen pasioa. Modu honetara, baliabide hauek kontuan izanik, nahi duguna lortu ahal izango dugu: jaki osasuntsu eta asegarriak

Aipagarria da jendearekin harremanak sortzeko dugun erreztasuna eta esperientzia. Hau gure abilezietako bat da. Oso ezaugarri lagungarria; astero harpidetza kopurua igo dadin eta behin harpidetuta, gure bezeroak eroso sentitzeko. Edozein zalantzaren aurrean, beraiek guri lasaitasunez esatea nahi dugu, eragozpenari ahalik eta azkarren irtenbidea bilatzeko. Bezeroaren eta gure arteko harreman estua, proiektuak ondo funtzionatzeko beharrezkoa dira eta. Haratago, unibertsitate eta hauen residentzietan plazaratzen da gehienbat, beraiek gure proiektuaren eskaintza areagotzen laguntzen digute eta honek gu jende gehiagoren ahoetan egotea eragiten du, harpidetza kopurua ugartuz.

Beste alde batetik, gure proiektuari eta taldeari hainbat gauza eskeiniko dizkio taldeko partaide bakoitzak:

- Carmenek adibidez, gailu teknologiekoeekin aritzeko erreztasuna jorratzen du. Honi esker, enpresaren web-gunea sortzeko gai izan gara. Berak egin du diseinua eta honen programazio sakona. Erabiltzaileentzako, erabiltzeko erreza eta arina, edonork ulertzeko modukoa.
- Oihanek sukaldaritzan duen abilezia ere aipatu beharra dago. Horrexegatik laguntzen du sukaldean, nutrizionista eta sukaldariari eskua luzatuz. Aitzitik, gidatzeko ahalmena duenez, tuperren banaketa ahalbidetuko du.
- Bukatzeko, Maddiren komunikatzeko erreztasuna benetan lagungarria izan dela aitortu beharra dago. Saltzaile sena da, primerako teknikak erabiltzen dituelako jendearen atentzioa bereganatzeko orduan. Hau oso ondo datorkigu publizitateari begira. Gainera, Oihanek bezala, gidatzeko ahalmena du.

Hau esanda, proiektua ahalik eta hoberen atera dadin, uste dugu funtsezkoa dela talde bezela lan egin eta elkarri laguntzea. Adi egon behar gara eta gauza guzti hauek kuntuan hartu behar ditugu. Partaide bakoitzak ahalegin handia eginez, eta gure denborari etekina ateraz.